



## **EUSKO JAURLARITZAKO XXXXX(-E)K DIRU-LAGUNTZEN ONURADUNEN ARGITARAPENARI BURUZ EGINDAKO KONTSULTAREN GAINEKO IRIZPENA.**

### **AURREKARIAK**

**LEHENENGO:** 2010eko otsailaren 1ean Eusko Jaurlaritzako XXXXX(-r)en ofizio bat jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Idazki horren bidez, zuzendariak goiburuan adierazitako gaiari buruzko txostena egiteko eskatzen zuen.

**SEGUNDO:** Kontsulta-idazkiak honakoa zioen:

*“Sail honek diru-laguntzak dituen zenbait programa ditu saileko sustapen jarduerak abian jartzeko. Diru-laguntzadun programak bi eratakoak dira: bertako funtsekin bakarrik finantzatuta dauden programak (Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorrak) edo Europako funtsekin ere finantzatutakoak (aurrekontu orokorrak + NBEF eta LGENF funtsak). Kasu bietan deialdiek diote nahitaez argitaratu behar direla Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian laguntza publikoen onuradunak. Bertako funtsen kasuan, bi arautan dago jasota obligazioa:*

*Diru-laguntzei buruzko azaroaren 18ko 38/2003 Lege Orokorraren 18. artikulua: emandako diru-laguntzak argitaratzea. Artikuluak dioenez, diru-laguntzak ematen dituzten administrazio organoek dagokion aldizkari ofizialean argitaratu beharko dituzte, eta honako datuak ere adierazi beharko dira erregelamenduetan ezarritako baldintzak betez: emandako diru-laguntzak; eta deialdia, programa, zein aurrekontu kredituri egotzi zaizkion, onuraduna, emandako zenbatekoa eta diru-laguntzaren helburua edo helburuak.*

*Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren antolaraueti buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren 49. artikuluko 2. idatz-zatiko 2. paragrafoak dio laguntzak eta diru-laguntzak arautzen dituzten arauak bestelakorik ez badute esaten, laguntzak eta diru-laguntzak emateko ebazpenak eta aldaketak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko direla, kontrol ekonomikoko bulegoak agintzen duen moduan.*

*Europako funtsen kasuan obligazioa honako arauak ezartzen zuten:*

*Nekazaritza-politika komunaren finantziarioari buruzko 2005eko ekainaren 21eko Kontseiluaren 1290/2005 zk.ko Erregelamenduak (EB) –2007ko*



azaroaren 26ko 1427/2007 Erregelamenduak (EB) aldatutako bertsioa-- 42. artikulua 8 ter puntua eta 44 bis artikulua, eta

1290/2005 zk.ko Erregelamendua (EB) ezartzeko xedapenak ezartzen dituen 2008ko martxoaren 18ko Batzordearen 259/2008 zk.ko Erregelamenduak (EB).

Bi erregelamendu horiek argitaratzeko obligazioa ezartzen zutela diogu, gerora Justizia Auzitegiaren (Sala Nagusia) 2010eko azaroaren 9ko epaiak baliogabetu egin zituelako Nekazaritza-politika komunaren finantziarioari buruzko 2005eko ekainaren 21eko Kontseiluaren 1290/2005 zk.ko Erregelamenduaren (EB) – 2007ko azaroaren 26ko 1427/2007 Erregelamenduak (EB) aldatutako bertsioa-- 42. artikulua 8 ter puntua eta 44 bis artikulua eta 1290/2005 zk.ko Erregelamendua (EB) ezartzeko xedapenak ezartzen dituen 2008ko martxoaren 18ko Batzordearen 259/2008 zk.ko Erregelamendua. Hau da, baliogabetu egin zuen Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsetik eta Nekazaritza Garatzeko Europako Funtsetik datozen funtsen onuradunei buruzko informazioa argitaratzeari buruz zioena. Epaiak dio artikulua horiek baliogabeak direla NBEF eta LGENF funtsen onuradun diren pertsona fisiko guztiei buruzko datu pertsonalak argitaratzeko obligazioa ezartzen dutelako, ezelako bereizketarik egin gabe, hau da garrantzizko irizpiderik ezarri gabe, esate baterako, pertsona horiek zein alditan jaso dituzten laguntzak, laguntzen maiztasuna edo laguntzak zein motatakoak diren edo laguntzen magnitudea.

Gure ustez, orain arte aipatu dugun araudiaz gain, beste batzuk ere hartu behar dira kontuan, adibidez, Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legea, aldizkari ofizialei buruzko araudia eta abar.

11/2007 Legearen 11.1 artikulua xedatzen duenez, eskumena duen administrazioaren, organoaren edo erakundearen egoitza elektronikoetan argitaratutako aldizkari edo buletin ofizialek inprenta bidez argitaratutako bezalako ondorioak izango dituzte, betiere herri administrazio bakoitzak ezarritako baldintzak eta bermeak betez. Bestalde, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariari buruzko abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 3. artikulua dioenez, edizio elektronikoan argitaratutako dokumentuak ofizialak eta benetakoak izango dira, eta dekretu honetan, ekainaren 22ko 11/2007 Legearen 11. artikuluan ezarritako arau eta baldintzak beteko dituzte. Arau horietan jasotako manuek argi adierazten dute edizio digitaletan argitaratzen diren datu pertsonalak atzitu egin daitezkeela eta ikusi.

Sailaren iritziz badira beste kontu garrantzitsu bi: lehenengoa aldizkari ofizialetan argitaratzen diren datu pertsonalei buruzkoa da, aldizkariak jendearen eskurako iturritzat jotzen direlako, eta, ondorioz, horrek esan nahi duelako ez dela beharrezkoa titularren adostasuna, 15/1999 Legearen 11.2 b) artikulua xedatzen duenaren arabera. Bigarrenak zer ikusia du datu horiek aldizkari ofizialetan argitaratzearekin eta argitaratzea datu-lagatsetzat edo datu komunikatutzat jotze delako kontuarekin; izan ere, datuak lagatzea edo komunikatzea ahalbidetzen duen legeren bat badago, ez delako behar adostasuna. Kasu honetan gorago adierazi ditugun arauak dira komunikazioa baimentzen dutenak.



*Beraz, esandako guztia kontuan hartuta, sailak uste du, bai autonomia erkidegoko bai Estatuko legediaren aldetik begiratuta, nahikoa lege babes dagoela laguntza publikoen onuradunak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ahal izateko. Baina, Justizia Auzitegiaren Epaia ikusi eta gero, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari honako galderak egin beharreau gaude:*

*Lehenengoa.- Saila zuzen al dabil pentsatzean baduela nahikoa lege babes onuradunen zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko?*

*Bigarrena.- Lehengo galderaren erantzuna baiezkoa bada: zilegi da bertoko funtsekin emandako laguntzen onuradunen zerrendak argitaratzea, baina ez argitaratzea Europako funtsekin finantzatutakoen onuradunena, Europako Batasuneko Justizia Auzitegiaren Epaia betez? ”*

**HIRUGARREN:** Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

*“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkieten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkieten galderei erantzutea.”*

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

## KONTUAN HARTZEKOAK

### I

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren iritzia eskatzen da jakiteko ea diru-laguntzen onuradunen datu pertsonalak aldizkari ofizialetan argitaratzea, datu pertsonalak babesteko oinarrizko eskubidearen arabera den.

Horretarako, galdera zehatz bi egiten dira, bata jakiteko ea argitarapenak nahikoa lege babes duen, eta, bestea, ea zilegi den Europako funtsekin finantzatutako zatiaren onuradunak ez argitaratzea.

Bulegoak uste du kontsulta-eskean ondo jaso direla kontsulta behar bezala erantzuteko gakoak.

Hasteko, esan behar da datu-babesaren ikuspegiari dagokionez, eskabideak ondo deskribatzen duela zer den datu pertsonalak "argitaratzea" aldizkari ofizialetan.

Hain zuzen ere, argitarapena da datu-lagatzea edo datu-komunikaziotzat jo behar da, DBLOren 3 i) artikulua dioelako datu-lagatzea zera dela: interesduna ez den beste pertsona bati datuak erakustea.



Datu pertsonalak komunikatzeari buruzko lege-erregimena DBLOren 11. eta 21. artikuluetan dago jasota batez ere.

Guk hemen 11. artikulua aipatuko dugu, besteak ez duelako eraginik aztertzen ari garen kasuan.

DBLOren 11. artikulua ("Datuen komunikazioa") honako xedatzen du:

*"1. Tratatu beharreko datu pertsonalak hirugarren pertsona bati komunikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da toki erakundearen eta lagapen-hartzailearen eginkizun legitimoekin lotuta dauden helburuetarako izatea, hau da, bakar-bakarrik horretarako izatea, eta interesdunaren alde aurreko adostasunarekin."*

*2. Aurreko paragrafoan aipatutako adostasuna ez da beharrezkoa izango honelako kasuetan:*

*a) Lege batek baimentzen badu lagapena."*

Beraz, datu pertsonalak komunikatu ahal izateko bete behar den arau orokorra da lagatzailearen eta lagapen-hartzailearen legezko eginkizunekin hertsiki lotuta egon behar dutela eta interesdunen adostasuna behar dela. Baina, lege batek baimentzen badu lagapena, ez da adostasunik behar.

292/2000 KAEk oso ondo jasotzen du artikulua horren logika:

*"Norbere datu pertsonalak bildu eta tratatu ditzaten adostasuna adierazteko eskubideak (DBLOren 6. artikulua) ez du esan nahi datu horiek hirugarrenei lagatzeko baimena ematen denik; izan ere, norbere datuak hirugarrenei lagatzeko baimena datu-babeserako oinarrizko eskubidearen edukiaren barruko ahalmen berezietako bat baita. Beraz, datu-bilketa egitean zegoen helburua ez den beste helburu bat duen tratamendu baterako laga nahi badira, nahiz eta helburuak bateragarriak izan (DBLOren 4.2 artikulua), horrek esan nahi du beste batek izango dituela datuak eta beste erabilera bat egingo dela, eta horretarako, interesdunaren adostasuna behar da. Konstituzioaren arabera funtsezkoak diren eskubideak eta ondasunak dira adostasunaren ahalmenak duen muga bakarra. Beraz, arrazoitua eta proportzionala izan behar du eta legez ezarria, datu pertsonalen babeserako oinarrizko eskubideak ez duelako bestelako mugarik onartzen".*

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak ere gauza bera esanda du:

*"Ondorioz, datu-lagapen batek 15/1999 Lege Organikoaren 11.2 a) artikulua babesa duela esateko, nahitaezkoa da lege batek zehaztea lagapenaren helmena eta helburua, alde batera utzita lege hori garatzen duen erregelamenduren batek gehiago zehatu dezakeela lagapena, beti ere legeak zehaztutako esparruaren barruan. Aitzitik, ez da nahikoa izango legeak lagapenaren gaineko arau orokor bat finkatzea, baina lagapenaren helburua, helmena edo hartzaileak zehaztu gabe, eta hori guzti hori erregelamendu batek esan lezakeenaren menpe utzita."*

Kontsulta-gaiari ezarri beharreko legeak aipatzean kontsulta-eskeak ondo esaten du zein diren, eta bi dira. Lege horiek lege-babesa ematen diote argitarapenen bidez egiten den datu-lagatzei eta honako hauek dira: Diru-laguntzei buruzko azaroaren



17ko 38/2003 Lege orokorra eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretua.

Lehengoi dagokionez, 8.3 artikulua dio diru-laguntzak kudeatzeko printzipioetako bat gardentasuna dela.

Eta 18.1 artikulua dio *“diru-laguntzak ematen dituzten administrazio organoek dagokion aldizkari ofizialean argitaratu beharko dituzte, eta erregelamenduetan ezarritako baldintzak betez, emandako diru-laguntzak; eta honako datuak ere adierazi beharko dira: deialdia, programa, zein aurrekontu kredituri egotzi zaizkion, onuraduna, emandako zenbatekoa eta diru-laguntzaren helburua edo helburuak.”*

18. artikuluko 3. idatz-zatiak argitaratzeko obligazioak zein salbuespen dituen finkatzen du, eta d) idatz-zatiak honakoa dio:

*“Onuradunaren datuak argitaratuz gero, diru-laguntzaren objektua jasota, eta hori egitea Ohorerako, Norberaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilar buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoan xedatutakoaren aurka badago, hau da, pertsona fisikoen ohorea, intimitate pertsonala eta familia intimitatea urratzen badute.”*

Beraz, inon da esaten argitarapenek muga bat dutenik eta muga hori datuak babesteko eskubidea denik.

Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan –kontsulta-idazkiak dioenez-- Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren 49. artikulua dioena interesatzen zaigu: *“laguntzen eta diru-laguntzen arautzen dituzten arauak bestelakorik ez badute esaten, laguntzak eta diru-laguntzak emateko ebazpenak eta aldaketak Euskal herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu behar direla, kontrol ekonomikoaren esparruan eskumena duen sailak agintzen duen moduan.”*

Beraz, esandako guztiaren arabera, planteatutako lehenengo galderari baietz erantzun behar zaio, argi dagoelako nahikoa lege-babes dagoela onuradunak aldizkari ofizialetan argitaratzeko.

Lege testu horiek argiak dira. Biek agintzen dute argitaratu egin behar direla. Goiko paragrafoetan azpimarratuta dago non esaten duten hori bi legeek. Beraz, oso argi dago.

## II

Bulegoak uste du bigarren galderari erantzutea, ordea, zailagoa dela, ez direlako datu pertsonalak babesteari buruzko araua bakarrik ezarri behar.

Datu-babesaren arloko araudia baino ez balitz ezarri beharko, lehenengo galderaren erantzun bera emango genioke bigarrenari ere; izan ere, Estatuan indarrean dauden



lege nazionalek babesaren ematen baitiote argitarapenari. Beraz, onartu egingo genukeen bertoko funtsekin emandako laguntzen onuradunak argitaratzea eta Europako funtsekin finantzatzeko aldeko onuradunak, ordea, ez argitaratzea, Europako Batasuneko Justizia Auzitegiaren Epaia betez. Datu-babesaren esparrutik begiratuta diogu hori, hau da, alde batera utzita ez argitaratzeko proposamenak lege-ordenamenduko beste esparru batzuetan izan ditzakeen ondorioak.

Kontuan izan behar da datu-babesaren esparrutik begiratuta zerbait "ez argitaratzeak" esan nahi duela "ez dela datu-tratamendurik egingo" edo "ez dela daturik komunikatuko". Eta horrek ez dauka ondoriorik datu-babesaren esparruan.

Hala ere, Bulegoan konturatzen gara erantzun horrek ez diela asko laguntzen kontsulta-egileak zentzu osoz agertutako zalantzei. Beraz, laguntzeko asmo husteraz bada ere, eta orain arte esandako guztia kontuan hartuta, ahalegina egingo dugu azaltzeko ea zergatik iruditzen zaigun egokia kontsulta-egilearen proposamena eta zein izan daitezkeen aurrerantzean auzia konpontzen lagunduko duten irizpideak.

Hain zuzen ere, Europako Batasuneko Justizia Auzitegiaren epaiak baliogabetu egin zituelako Nekazaritza-politika komunaren finantziarioari buruzko 2005eko ekainaren 21eko Kontseiluaren 1290/2005 zk.ko Erregelamenduak (EB) –2007ko azaroaren 26ko 1427/2007 Erregelamenduaren (EB) aldatutako bertsioa-- 42. artikulua 8 ter. puntua eta 44 bis artikulua eta 1290/2005 zk.ko Erregelamendua (EB) ezartzeko xedapenak ezartzen dituen 2008ko martxoaren 18ko Batzordearen 259/2008 zk.ko Erregelamendua. Hau da, baliogabetu egin zuen Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsetik eta Nekazaritza Garatzeko Europako Funtsetik datozen funtsen onuradunei buruzko informazioa argitaratzeari buruz ziotena. Epaiak dio artikulua horiek baliogabeak direla NBEF eta LGENF funtsen onuradun diren pertsona fisiko guztiei buruzko datu pertsonalak argitaratzeko obligazioa ezartzen dutelako, ezelako bereizketarik egin gabe, hau da garrantzizko irizpiderik ezarri gabe, esate baterako, pertsona horiek zein alditan jaso dituzten laguntzak, laguntzen maiztasuna edo laguntzak zein motatakoak diren edo laguntzen magnitudea.

Beraz, argi eta garbi dago onuradunak argitaratu egin behar direla dioten artikulua horiek baliogabeak direla.

Gauzak horrela, eta bi artikulua baliogabeak direla argi utzita, datu-babesarekin zer ikusirik ez duten bestelako alderdiei heldu behar zaie. Baina, Bulegoa ez da gai horietan aditua, hau da, Bulegoak ez daki zein den erregelamendu bat baliogabea dela deklaratu duen epaiketa aurreko erabakien helmena edo baliogabetze-deklarazioaren eragina, kontu konplexuak direlako. Gainera, horri guztiari gehitu behar zaio ez dela erregelamenduaren aurkako baliogabetze errekurtsorik aurkeztu, eta, Bulegoaren iritziz, nekez lor daiteke aho batez kontu horientzako konponbiderik; horretaz gain, ikusita kontsulta-egilearen eskumen esparrua zein den eta Europako zuzenbidea tartean egonda, esan daiteke litekeena dela kontsulta-egileak Bulegoak baino hobeto ezagutzea gai hori.

Kontu horien gaineko azterketa sakonak alde batera utzita, lagungarria izan daiteke argi uztea artikulua baliokoak diren ala ez argitzeko epaiketa aurreko erabaki



eskaera dela epaiaren xedea. Beraz, zentzuzkoa ematen du esatea, gainetik bada ere eta xehetasunetara jo gabe, horrelako auzien gaineko ebazpenen helburua Europako Batasuneko zuzenbidearen batasuna bermatze dela hain zuzen ere.

Horretaz gain, esan behar da denek uste dutela erregelamenduak direla Europako Batasuneko lege ordenamendua batzeko tresna garrantzitsuena, eta erregelamenduak Estatu guztietan modu uniformean ezartzea dela helburua; eta Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiak ez duela nahi izaten estatuek tarteko beste araurik ezartzea, hori eginez gero, oztopatu egingo litzatekeelako erregelamenduak aldi berean ezartzea Europako Batasunean edo erregelamenduak aplikatzeko orduan baldintzak jarriko lituzketelako.

Beraz, hori hala bada, zehurtiaz bada ere, pentsatzekoa da erregelamendu horietako artikulua bi horiek baliogabetzeko deklarazioaren ondorioz, artikulua ez direla aplikatu behar ulertu behar dela.

Beraz, kontsulta-egileak egindako proposamena guztiz zentzuzkoa dela esan behar da, batez ere kontuan hartzen bada, epai horretako 29. zuzenbidezko oinarria aintzat hartuta, Hesseko Estatuak konpromisoa hartu zuela ez argitaratzeko NBEF eta LGENF laguntzen onuradunen eskatzaileek jasotako zenbatekoak, harik era epaia eman arte.

Berretsi nahi dugu zerbait ez argitaratzea ez dela datu-babeserako kaltegarria; gainera, ez argitaratzeak ez dio txarrik egiten egintzaren eraginkortasunari, ezen esleipenen jakinarazpena modu pertsonalean egiten baita. Beraz, argitarapenak beste helburu hau du: gardentasuna. Beraz, organoak baloratu beharko du ea argitaratu ezean, laguntzak ez liratekeen baliokoak izango. Gainera, kontuan hartu beharko luke Diru-laguntzei buruzko Legea garatzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 3 c) artikulua dioena, izan ere berariaz aipatzen baitu argitaratu egin beharko dela *“Europako Batasunaren konturako finantzaziorik dagoen eta, halakorik badago, baita finantzazio portzentajea ere”*.

### III

Orain arte bezala, kontu handiz eta zehurtiaz jokatuta, Bulegoak ahalegina egingo du, kontsulta esaten dena kontuan hartuta, aldizkari ofizialetan egiten diren argitalpenek oinarrizko eskubidean ahalik eta kalterik txikiena egiteko erabil daitezkeen irizpide batzuk emateko, eta, horretarako, kontsulta-idazkian Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legeari egindako aipamena baliatuko gara. Baina, hori baino lehen, aipatu dugun epaiari egin ahal zaizkion interpretazioak muturrera eramaten saiatuko gara, batetik, lehen esan dugunez, erabat baliogabeak direlako artikulua horiek, baina, bestetik, zilegi delako argitaratzea, argitaratzeko moduak oinarrizko eskubideari ahalik eta kalterik txikiena eginda eta artikulua horiek jasotzen duen kontrol eta gardentasun helburuak betez.

Beraz, hona hemen epai horretatik erator daitezkeen hainbat gogoeta:



1. Ukitutako onuradunen datu izendunak eta berariazko zenbatekoak argitaratzeak datu pertsonalak babesteko oinarrizko eskubidean esku-hartzea dakar.
2. Esku hartze horrek, ordea, Europako Batasunak aitortutako interes orokor bat du helburu: Europako Batasuneko funtsak erabiltzean gardentasuna handitzea eta funtsen finantza kudeaketa hobetzea; ikusi bestela Europar Batasunaren Itunaren (EBI) 1. eta 10. artikuluek eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren (EBFT) 15. artikulua jasotzen duten gardentasun printzipioa.
3. Proporzionaltasun printzipioak eskatzen du Europako Batasuneko egintzak gauzatzeko erabiltzen diren bitartekoak egintzaren helburua lortzeko bestekoak izatea, eta ez gehiago.
4. Europako Kontseiluak eta Batzordeak ez dute balioztatu zein den Europako Batasunaren interesaren eta ukituen oinarrizko eskubidearen arteko oreka, ez dutelako kontuan hartu informazioa argitaratzeko hainbat modu daudela eta informazioa argitaratzean lortu nahi den helburua bizitza pribatua ere errespetatuz egin daitekeela, adibidez, onuradunen datu izendunak eta diru-laguntzak noiz jaso dituzten dioten datuak argitaratzeko mugak jarritz, bai eta diru-laguntzak zenbatetan jaso dituzten edo diru-laguntza mota eta diru-laguntzen magnitudea argitaratzeko ere.
5. Kalte gutxiago egiten duten neurriak har daitezke, eta aldi berean berdin-berdin lagundu Europako Batasunaren araudiaren helburuak lortzen.

Egia da epaiak ez duela esaten zehatz-mehatz zein neurri hartu behar diren, eta, beraz, argitaratzeaz arduratzen diren organoen esku geratzen da argitalpenetako irizpideak finkatzea eta organoek erabakitakoa betetzen dela ziurtatzea. Baina egia da ere bai goian aipatu ditugun epaiko gogoetak aintzat hartuta, esan daitekeela neurriak eta irizpideak hautatzeko aukera zabala dutela; aukera bat da organoak berak egindako proposamena (ez argitaratzea); beste bat da erabat disoziatzea; beste bat izan daiteke datu batzuk baino ez ematea, hau da, zenbatekoen berri ematea, baina onuradunak identifikatu gabe; edo, kontrara ere egin daiteke, hau da, argitarapen orokor bat egin, eta, zehaztasunak jakin nahi izanez gero, espedientea administrazio bulegoetara jota atzitzeko aukera eman, 30/1992 Legearen 61. artikuluan aurreikusten denaren antzera.

Horrek guzti horrek Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legearekin lotzen gaitu, eta kontsulta-idazkiak ere horixe dio, ondo esanda.

Eta ondo esanda dagoela diogu, ezen epaiari kezka zantzua baitario datu pertsonalak web orri batean argitaratzen direnean gertatzen denari buruz, oso zaila izaten delako behin argitaratuz gero —nahiz eta bertan aipatzen den araudiak esan epe jakin batean baino ezin direla egon bertan—, eta bilatzaileek indexatu ondoren, datu horiek desagerraraztea.



Beraz, hartzen den erabakiak baldin badio aldizkari elektronikoaren edizio digitalean argitaratu behar direla datu pertsonalak, Bulego honek proposatzen du horrelakoetan neurri tekniko batzuk hartzea bilatzaileek ezin dezaten daturik indexatu, baina argi izanda horrek ez duela kaltetu behar argitarapenaren balioa eta eraginkortasuna.

Ondorioz, bat egiten dugu Datuak Babesteko Espainiako Agentziak proposatu zuenarekin 197/2010 txostenean. Txostenean Agentziaren beraren zenbait irizpen aipatzen dira eta zera esaten da:

*“Alde batera utzia Agentziak Google bilatzaileari egin zion errekerimendua, eta kontuan izanda interesdunak jada baduela administrazio egintza horien berri, helburu horixe baitzuen aldizkari ofizialetan argitaratzeak, Kordoba eta Cádizeko aldundiek neurriak hartu beharko dituzte XXXX jaunaren izen-abizenak ez daitezzen indexatu, eta, horretarako, norobot.txt kode bat gehituko dute dokumentu horietan, aurrerantzean Interneteko bilatzaileek ez dezaten interesdunarekin lotu.”*

## ONDORIOA

1. Kotsultan aipatzen diren diru-laguntzen onuradunak aldizkari ofizialean argitaratzea datu pertsonalak babesteari buruzko araudiarekin bat dator, irizpen honen I. gogoeten edo kontuan hartzekoen atalean esandakoaren arabera egiten bada.
2. Bertoko fondoekin emandako laguntzen onuradunak argitaratzea eta Europako fondoekin finantzatutako zatiaren onuradunak ez argitaratzea datu pertsonalak babesteari buruzko araudiarekin bat dator, irizpen honen II. gogoeten edo kontuan hartzekoen atalean esandakoaren arabera egiten bada.

Vitoria-Gasteizen, 2011eko martxoaren 25a